

# Gizakien salerosketa: serio hartzen al dugu?

Jon-Mirena Landa Gorostiza

Giza Eskubideen eta Botere Publikoen  
EHUko Unesco katedraren zuzendaria

**E**uropako Giza Eskubideen Auzitegiak epaia (*T.V. c. Espainia*) eman berri du urriaren 10ean, gizakien salerosketa delitu larriaren biktima baten alde. Demandatzailea, T.V. andrea, nigeriarra da eta Espainian bizi da. 2003an 14 urteko adingabekoa zelarik, Espainian salerosketaren biktima izan zela salatu zuen. Antza, familiako ezagun batek (C. izenekoak) Espainiara lan egitera eramateko eskaintza egin zion 70.000 euroren truke, irabaziko zituen soldatekin ordaindu ahalko zizkiola. Ez zion jakinarazi bere etorkizuneko lanaren izaera.

Parisetik Espainiara bidaiatu zuen faltsututako helduentzako pasaporte batekin, eta C-k berak harrera egin zion iristean. Hark Sevillako Arahala udalerriko etxe batera eraman zuen eta klub batean prostituzioan aritzera behartu, C-ren kontrolpean, 2007an ihes egitea lortu zuen arte. T.V-k prostituzio behartua eta tartean budua ere egin ziotela salatu zuen.

Agintariak ikerketa formal bat ireki zuten 2011ko ekainean, eta lekuko babestuen izaera eman zioten T.V. andreari. Instrukzioko epaitegiak Guardia Zibilari hainbat eginpide agindu zizkion arren, motel abiatu zen prozedura eta, horren adibide, biktima prostituzioan aritu omen zen klubeko bi kudeatzaile ez zituzten galdekatu 2013ko urtarrila eta apirilera arte. Kasua behin-behinean artxibatu nahi izan zen orduan, frogarik ez zegoelakoan, baina fiskalak errekurtsio bat aurkeztu izanari esker, instrukzio-epaitegiak 2014ko apirilean eginbide berriak agindu zituen.

Dena dela, ikerketa azkenik 2016ko irailean amaitu zen, eta kasua Sevillako Probintzia Auzitegira bidali zen. 2017ko urtarrilean, Probintzia Auzitegiak artxibatu egin zuen kasua behin-behinean, kontuan hartuta, adinari buruzko balorazio-txostenen arabera, biktimak 6 urte omen zituela 2003an. Handik epaileek ondorioztatzen dute biktimak aurkezten zuen bertsioa ez zela sinesgarria. Auzitegi Gorenak eta Konstituzio-azitegiak, biek, bakoitzak bere ikuspuntutik artxiboa berretsi zuten. Barneko bidea itxita, biktimak Europako Giza Eskubideen Auzitegira jo zuen justiziaren bila.

Orain arteko bidegurutzea jarraitu duen irakurlea konturatuko da zenbat urtez eta zein astiro gertatu zen auzi-ikerketa. Eta hari honetatik etorriko da Estraburgoko erantzuna. Alegia, Europako Auzitegiak esan du halako ikerketa judiziala ez dela kalitatezkoa: ez duela balio hain larria den kasu baterako, eta neurri batean arrazoia emango dio biktimari.

Izan ere, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak sinesgarritzat jo baitu demandatzailearen kontakizuna, eta agintariak ikerketak akats garrantzitsuak izan

dituela aurpegiratu die. Lehenik eta behin, 2011n ikerketa bat formalki ireki bazen ere, neurri oinarritzkoenak —adibidez, T.V. andrea ustez lan egitera behartu zuten klubeko gerenteei galdetzea— ez ziren 2013ra arte hartu. Era berean, ez zen neurri esanguratsurik hartu 2014ra arte ustezko trafikatzailak identifikatzeko, salaketa penala aurkeztu eta ia hiru urtera. Argi dago agintariak ez zutela behar besteko arduraz jokatu ikerketaren hasierako fasean.

Bigarrenik, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak ebatzi du agintariak ez zutela begi-bistako beste ikerketa-lerrorik jarraitu, nahiz eta biktimak bere salaketan alegatutako egitateen deskribapen zehatza eman. Alegia, ikertzeko aukera asko baztertu zuten epaileek, zentzurik gabe, eta horrek eragingo zuen kasuaren gaineko argirik egin ezin izatea. Adibidez, agintariak ez zituzten arrazoizko neurri guztiak hartu demandatzaileak klubean ustez egindako lanaren inguruabarrak argitzea.

Era berean, pasaportearen inguruan ez ziren ahalegindu baieztatzen ea Paris-etik pasatutakoa ote zen. Gainera, artxibo judizialak egiteko modua oso azalekoa eta arrazoitu gabekoa zela nabarmentzen du Estraburgok, batzuetan oso ondorio laburretara —parrafo bakarrekotara— mugatuz. Azkenik T.V. andrearen adinari buruzko funtsa gabeko usteetan oinarritu ziren bere kontra egiteko.

Bere epaian Estraburgoko Auzitegia, beraz, konklusio batera iristen da: ikerketa ahul eta malapartatuaren ondorioz, Espainiako agintariak ez ziotela jaramonik egin gizakien salerosketaren salaketa larria ikertzeko betebeharrari, delitu horrek biktimentzat zein ondorio suntsitzaileak dituen kontuan hartu gabe. Beraz, Europako Giza Eskubideen Itunaren 4. Artikulua, esklabotza debekatzen duena, bere «alderdi prozesalean» urratutzat jotzen du.

*Alderdi prozesala* teknizismo bat dela ematen du, baina horrek kasu honetan ikaragarriko injustiziarri buelta ematen dio; izan ere, estatu demokratikoetan epaiketa justu bat edukitzeko eskubidea behar bezala gauzatzen ez bada, biktimak jai baitu. Bilatzen ez duenak ez du topatuko! Trata-biktimaren kasuan, gainera, epaitegiatik kanpo pairatutako sufrimenduaz gain (tartean prostituziora behartuz) bir-biktimizazioa dakar prozesuak. Epailleek, fiskalek, poliziek —hots, Estatuak— bere lana behar bezala egiten ez badute, egia ez da argitara aterako, ustezko delitugileak ez dira kondenatuak izango, gizakien-salerosketaren gurrupil-zoroak bueltaka jarraituko duela. Eta gainera, kasu honetan kasualitatea ote da demandatzailea emakumea, kanpotarra, azal beltzekoa, txiroa izatea?

Jakina da justizia geldoa ez dela justizia. Baina geldoaz gain, *justizia* biktima hauskorrenen kontra bihurtzen bada, zein mezu bidaltzen zaie erabat abusatuak suertatzen diren gizakien salerosketaren biktimari? Eskerrak Estraburgotik egoerari, neurri batean bederen, buelta eman zaiola, biktimarentzat berri on hau agian oso berandu etorri arren. ●

## Hegazkina



JIRA  
Maialen Akizu

**A**steburu-pasa joan nahi zuten, berdin zitzaien nora, eta Oportora heldu ziren atzo, *txollo bat* topatu zutelako: Bilbotik Oportora, zazpiehun kilometrotik gora bi lagun hegan joan eta itzultzea, ehun euro. Horrelakoen berri jakiten dudanean pentsatzen dut nire algoritmoa hobeto entrenatu behar dudala, sekula ez baitit halako gangarik erakusten. Ni ere hasten naiz tarteka hegaldi merke baten bila, ihes joateko, hegan joateko, merke joateko, baina gehienez oroitzen dut hori ez dela nire desira.

Orain artean hegazkinak horren merke egoteak ez zidan arretarik pizten, baina irakurri berri dut hegazkinak erregai zergetatik salbuetsita daudela, hegazkinen bidaia bakoitzeko, batez beste, ehun kilo karbono dioxido sortzen direla hegaldiaren ordu bakoitzeko, eta Hagako tribunalak, osasun publikoaren kontrako jardura dela erabakita, debekatu egin dituela aireko-zerbitzuen iragarriak. Uste dut ezagutuko dugula hegazkina *txollo bat* ez den garaia: ikusiko ditugu, baina urrun edo urrunago, eta agian ez dugu izango hegan doan irudipena. ●

## Xingolak



BIRA  
Onintza Enbeita

**P**rostatako minbizia izaten duten gizonei, hainbat alternatiba eskaintzen dizkiete zakila berriz ere tentetu dakien nahi bade. Oso hurbil bizi izan dut, eta badakit badirela pilulak, ukenduak eta injekzioak, besteak beste. Minbizia izan duten emakumei, tratamenduak bagina lehortzen die. Hormonoterapiaren desioa galtzen dute, eta medikuek ez dute haien desioa berreskuratzeko, edo sarketa gozagarri egiteko aukerarik eskaintzen. Pote urdineko Nivea aholkatu izan diote baten bati, eta bizirik egotearekin konformatzeko iradoki gehienei. Gure plazerak ez du inporta, ez gara gizonak, zertarako ikertu edo alternatibak landu? Tontakeria bat irudituko zaizue, baina minbiziaz, hura ulertzeko moduz, gure osasun sistemaz, ikerketa gehiagoren beharraz, zenbait profesionalen mailaz eta gaurko egunaz asko esaten duen xehetasuna da.

Ez iezadazue gaur xingola arrosarik opatu, mesedez. Eskatu ezazue nirekin batera osasun sistema publiko indartsua eta baliabideduna. Eskatu ezazue iker dadila minbizia, eta gure zergak bideratu daitezela horretara. ●